

## AUTOEBALUAZIO ARIKETAK

### 5.GAIA

Irakasle taldea  
ELORDI GÜENAGA, UDANE  
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER  
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA  
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER  
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ  
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

1. Erizaintzako Graduako Titulua arautzen duen CIN/2134/2008 Aginduak honako hau adierazten du practicumari buruz:
  - a) Lanbide aurreko praktikak dira, eta ebaluatu egin behar dira.
  - b) Hainbat osasun arlotan egin behar dira.
  - c) Besteak beste, balio profesionalak eta iritzi kritikoa txertatzeko aukera eman behar dute.
  - d) Aurreko guztiak zuzenak dira.
  
2. Donostiako Ataleko Erizaintzako Graduako ikasleek hainbat erakundetan egin dezakete practicuma. Adierazi zein EZ den zuzena:
  - a) Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea.
  - b) Ospitale publikoak eta pribatuak.
  - c) Osasun etxeak.
  - d) Zentro soziosanitarioak.
  
3. Practicuma egiteko plazen ezaugarriak aztertu ondoren, 5 arlo hauetan sailkatu dira:
  - a) Barne medikuntza; kirurgia; zentro gerontologikoak eta soziosanitarioak; zainketa kritikoa; ama-haurren zainketak; lehen mailako arreta; eta enpresako erizaintza.
  - b) Barne medikuntza; kirurgia; zentro gerontologikoak eta soziosanitarioak; zainketa kritikoa; ama-haurren zainketak; lehen mailako arreta; eta erizaintza onkologikoa.
  - c) Barne medikuntza; kirurgia; zentro gerontologikoak eta soziosanitarioak; zainketa kritikoa; ama-haurren zainketak; lehen mailako arreta; eta unitate eta zerbitzu bereziak.
  - d) Barne medikuntza; kirurgia; zentro gerontologikoak eta soziosanitarioak; zainketa kritikoa; ama-haurren zainketak; lehen mailako arreta; eta erizaintza kirurgikoa.
  
4. Ikasleek practicumean izango duten prestakuntza ibilbidea erabakitzeke, hau da, ikasleek zer practicumetan zein arlotan egin ditzaketen praktikak erabakitzeke, honako hauek hartu ziren kontuan:
  - a) Ikasketa plana.
  - b) Irakasgai teoriko-praktikoetako gaitasunak.
  - c) Osasun erakunde publikoek eta pribatuek eskaintzen dituzten plazen kopurua.
  - d) Aurreko guztiak zuzenak dira.
  
5. Prestakuntza ibilbideari dagokionez, adierazi zein EZ den zuzena:
  - a) Zainketa kritikoen arloan, praktikak 4. mailan egiten dira.
  - b) Lehen mailako arretaren arloan, praktikak 1. mailan egiten dira.
  - c) Barne medikuntzaren arloan, praktikak 1. mailatik aurrera egin daitezke.
  - d) Zentro soziosanitarioetan, praktikak 1. mailatik aurrera egin daitezke.

## ERANTZUNAK

Galdera zenbakia	Erantzun zuzena
1	d
2	a
3	c
4	d
5	b